

GAIA: Zenbait gatazka

DOINUA: Menperatu gaituzte

1.Gatazka guzti hauek
guk hartzeko aintzat
justizia egoteko
pertsonek hantzetat
pakea izateko
mundu guztiantzat
jaio beharko nuke ai ai ai ai
mila bider behintzat

2.Orain duela gutxi
Palestinian ginen
ta herritar xumeak
garbitu zituzten
batzuk daude bizirik
besteak hil ziren.
Israelgo poliziak ai ai ai ai
nolakoak diren

3.Duela urte asko
nagusi zan Hitler
juduak ziren ordun
nazi hoieng maizter
Alemaniak gerra
galdu bezain laster
juduak libre ziren ai ai ai ai
porrot horri esker.

4.Ba, Martin Lutherkinen
bazun ausardia
desagertzeko behingoz
arrazakeria
beltzak ez izateko
txurien erdia
berdin balio dute ai ai ai ai
hori da egia.

5.Astinduz ta jipoituz
iritsiz hiltzera
odola dariola
lepotikan be(he)ra
urteak pasa arren
beti gauza bera
Emakumeak aske! ai ai ai ai
guztiok batera.

6.Gure arazoa da
Euskal Herrikoa
beti izan baigera
herri menpekoa
guk nahi dugu herri bat
denon gustokoa
lortu arte badugu ai ai ai ai
zeregin nahikoa.